

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

**25/2019 Mozioa, martxoaren 27koa, zeinaren bidez Arabako Foru Aldundiari eskatzen baitzaio Arabako Lurralde Historikoko toki erakunde guztiekin ur kudeaketari dagozkion lanen inguruko elkarlana eta parte-hartzea orekatua izan dezala**

Arabako Batzar Nagusiek, 2019ko martxoaren 27an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

25/2019 Mozioa, martxoaren 27koa, zeinaren bidez Arabako Foru Aldundiari eskatzen baitzaio Arabako Lurralde Historikoko toki erakunde guztiekin ur kudeaketari dagozkion lanen inguruko elkarlana eta parte-hartzea orekatua izan dezala.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote diruz lagundu ditzala, hala eskatzen badute, Arabako tokiko entitateek edo partzuergoek uraren kudeaketan egindako gastuak, abenduaren 28ko 842/2018 Erabakian Arabako Ur Partzuergorako egindako proposamenarekiko proportziosko zenbateko batengatik. Bermatuko da, betiere, berdintasun, elkartasun eta udalerrien arteko orekaren printzipioak betetzen direla.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote aholkularitza, arreta eta asistentzia berbera bermatu diezaiela ura kudeatzen duten Arabako Lurralde Historikoko entitate guztiei, baldin eta betetzen badute uraren Europako arau-esparrua eta Europako lege-eskakizunek onartutako formula juridikoaren arabera joketzen badute.

3. Arabako Batzar Nagusiek erabakia helaraziko diete EUDEL Euskadiko Udalerrien Elkarteari eta AKE Arabako Kontzejuen Elkarteari, Arabako Lurralde Historikoko udalerrri eta administrazio-batzarren artean zabaltzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko martxoaren 27a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**